

TAXIEN UDAL ARAUDIA

ZIOEN AZALPENA.....	3
1. TITULUA. ARAU OROKORRAK	3
1. artikulua.- Araudiaren helburua eta aplikazio-eremua.....	3
2. artikulua.- Definizioak.....	3
3. artikulua.- Printzipio nagusiak.....	4
II. TITULUA. LIZENTZIAK ETA BAIMENAK.....	4
1. KAPITULUA.- GAIKUNTZA EMATEN DUTEN TITULUAK.....	4
4. artikulua.- Lizentziak.....	4
5. artikulua.- Garraiatzeko baimena.....	4
6. artikulua.- Lizentzia-kopurua.....	5
2. KAPITULUA.- LIZENTZIAK EMATEA.....	5
7. artikulua.- Lizentzia lortzeko administrazio-eskakizunak.....	5
8. artikulua.- Lizentziak ematea.....	6
9. artikulua.- Eskatutako agiriak.....	6
10. artikulua.- Lizentzien erregistroa.....	7
11. artikulua.- Lizentzien indarreko epea.....	8
12. artikulua.- Lizentziaren baldintzak egiaztatzea.....	8
3. KAPITULUA.- LIZENTZIAK BESTERENTZEA.....	9
13. artikulua. Lizentziak besterentzea.....	9
14. artikulua.- Besterentzeen prozedura.....	10
4. KAPITULUA.- LIZENTZIAK IRAUNGITZEA.....	10
15. artikulua.- Lizentziak iraungitzea.....	10
16. artikulua.- Lizentzia kentzea.....	11
17. artikulua.- Lizentziak eta horien mugak etetea.....	11
18. artikulua.- Ibilgailua bera edo ibilgailuaren ezaugarriak aldatzea.....	11
III. TITULUA. JARDUERARAKO ARAUBIDE JURIDIKOA.....	12
LEHENENGO KAPITULUA: ERABILTZAILEAK.....	12
19. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.....	12
20.-. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.....	12
BIGARREN KAPITULUA: GIDARIAK.....	13
21. artikulua.- Gidarien betebeharrak.....	13
22.-artikulua.- Debekuak.....	13
23. artikulua.- Gidarien eskubideak.....	14
HIRUGARREN KAPITULUA.- IBILGAILUAK.....	14
24. artikulua.- Ibilgailuak izateko moduak.....	14
25. artikulua. Zirkulatzeko gaikuntza.....	14
26.- artikulua.- Jarleku-kopurua.....	15
27. artikulua.- Ibilgailuen ezaugarriak.....	15
28. artikulua.- Ibilgailuen bestelako ezaugarriak.....	16
29. artikulua.- Pintura eta bereizgarriak.....	17
30. artikulua. Taximetroa eta modulua.....	17
LAUGARREN KAPITULUA. GIDARIAK.....	17
31. artikulua. Turismo-ibilgailuen gidariak.....	17
32. artikulua.- Gaitasun-ziurtagiria.....	18
33. artikulua.- Gidariaren baimena.....	18
BOSGARREN KAPITULUA.- ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZAK.....	19
34. artikulua.- Jarduera burutzea eta horretarako baldintzak.....	19
35. artikulua.- Jarduerarako dedikazioa.....	19

36. artikulua.- Zerbitzua kontratatzea.....	19
37. artikulua.- Zerbitzu osagarriak.....	20
SEIGARREN KAPITULUA.- GELTOKIAK eta KOKAGUNEAK.....	20
38. artikulua.- Geltokiak.....	20
39. artikulua.- Geltokien antolamendua.....	20
40. artikulua.- Gaueko zerbitzuak.....	21
41. artikulua.- Zerbitzua eskaintzeko ordutegi eta egutegiak.....	21
42. artikulua.- Ibilgailuan izan beharreko agiriak.....	21
43. artikulua.- Ikuskaritza.....	22
IV. KAPITULUA – TARIFAK.....	23
44.-. artikulua.- Zerbitzuen tarifak.....	23
III. TITULUA. ZEHAPEN ARAUBIDEA.....	23
45. artikulua.- Garraiolarien arau-haustekak.....	23
46. artikulua.- Erabiltzaileen arau-haustekak.....	25
47.-artikulua.- Zigorrak.....	25
2. Aurreko paragrafoan ezarritako mugen barruan ezarritako isunen zenbatekoa otsailaren 20ko 2/1998 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen zehapen-ahalaren gainekoan, xedatutakoaren arabera mailakatuko da.....	25
48. artikulua.- Preskripzioa.....	25
49. artikulua.- Eskumena eta prozedura.....	26
XEDAPEN IRAGANKORRA.....	26
AZKEN XEDAPENA.....	26
XEDAPEN INDARGABETZAILEA.....	26

ZIOEN AZALPENA

Taxi-sektoreko ordezkariak eginiko eskarien ondorioz, eta 1979ko urriaren 11n onetsitako bidaiarien alokairuko automobilen lineaz kanpoko zerbitzu publikoaren udal-araudia Bidaiariak herri barruan eta kanpoan autoz garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legeak ezarritakora eta Bidaiariak herri barruan eta kanpoan autoz garraiatzeko zerbitzu publikoari buruzko Legearen Erregelamendua onesten duen urriaren 15eko 243/2002 Dekretuak ezarritakora egokitzeko beharraren ondorioz, Santurtziko Udalak, bere eskumenez baliatuta, Erregelamendu honen bidez, zerbitzu horiek erregularizatu ditu, bere udalerrian eta bertan adierazten diren berezitasunekin.

1. TITULUA. ARAU OROKORRAK

1. artikulua.- Araudiaren helburua eta aplikazio-eremua.

Araudi honen helburua da bidaiariak gidaria duten eta taximetroaren kontagailua daukaten –aurrerantzean, taxi– turismo-ibilgailuan Santurtzi udalerrian garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzea.

Araudi hau Santurtzi udalerrian zirkulatzen duten taxi guztiei aplikatuko zaie, bai eta turismo-automobiletan bidaiariak garraiatzeko udal-lizentzia duten titularrei eta horien erabiltzaileei ere.

2. artikulua.- Definizioak.

Araudi honen ondorioetarako, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:

Taxi-zerbitzuak: Turismo-automobiletan bidaiariak garraiatzea, taximetroaren gailuz baliatuta eta tarifa izeneko prezio bat ordainduta egiten dena.

Hiri-garraioa: Santurtzi udalerrri barruan soilik dabilzan zerbitzuak.

Hiri arteko garraioa: Hiri-garraioan sartzen ez diren zerbitzuak.

Turismo-ibilgailua: motozikletez bestelako ibilgailu automobilak, pertsonak garraiatzeko egin direnak, bederatzi plazakoak edo gutxiagokoak, gidariarena barne.

Titularra: Taxi-zerbitzuak emateko pertsona baimendua.

Gidaria: Turismo-ibilgailua gidatzen duen pertsona fisikoa, dela lizentziaren edo baimenaren titularra delako, dela lehenengoaren soldatapekoa delako.

Soldatapekoa: Lizentziaren titularrak Araudi honetan zehazten diren kasuetan eta baldintzetan taxi-zerbitzuak emateko kontratatzen duen pertsona.

Lizentzia: Lizentzia titulu juridikoa da, Araudi honek aipaturiko hiriko zerbitzuak eman ahal izateko titularrari gaitasuna ematen diona.

3. artikulua.- Printzipio nagusiak.

Taxi-zerbitzuaren jarduerak honako printzipio hauek ditu oinarrian:

- a) Administrazioaren esku-hartzea, zerbitzua emateko kalitate-maila ona lortzeko interes publikoaren beharrezko bermea oinarri duena.
- b) Unibertsaltasuna, irisgarritasuna, jarraitutasuna eta erabiltzaileen eskubideen errespetua.
- c) Ibilgailuen erabiltzaileek eta gidariek elkarrengan dituzten eskubide eta betebeharrak errespetatzea.
- d) Udalaren eta lizentziaren titularren arteko lankidetzak, zerbitzua emateko baldintzak hobetzeko.

II. TITULUA. LIZENTZIAK ETA BAIMENAK

1. KAPITULUA.- GAIKUNTZA EMATEN DUTEN TITULUAK

4. artikulua.- Lizentziak.

1. Lizentzia titulu juridikoa da, Araudi honek aipaturiko hiriko zerbitzuak eman ahal izateko titularrari gaitasuna ematen diona.

2. Lizentzia bakoitzak titular bakarra izango du, gidari bakarra, eta ibilgailu jakin batentzat bakarrik izango da. Ibilgailuaren identifikazioa agertuko da lizentzian eta pertsona bat bera ezingo da lizentzia bat baino gehiagoren titularra izan.

5. artikulua.- Garraiatzeko baimena.

1. Hiriarteko zerbitzuak Bizkaiko Foru Aldundiak emandako garraiatzeko baimena (garraio-txartela) duten udal lizentziadun titularrek soilik eman ditzakete.

2. Bizkaiko Foru Aldundiak urtero Santurtzi udalerraren izenean aireportu-zerbitzuetarako ematen dituen garraio-txartelak dagozkien taxi-lizentziek erabili beharko dituzte, eta asteko txandakatze-sistemaren bidez esleituko dira, udalerrian dauden taxi-lizentzia guztien artean, zerbitzu horri uko egiten

dioten lizentzien kasuan izan ezik. Aireportuaren zerbitzuari uko egiteak urte natural osoan izango du eragina.

6. artikulua.- Lizentzia-kopurua.

1. Emango den taxi-zerbitzuaren lizentzia-kopurua dagokion udal-organoak zehaztu ahalko du, aplikagarria den araudiarekin bat, emango den zerbitzua hobetzeko.

Nolanahi ere, emango den gehienezko lizentzia-kopurua Eusko Jaurlaritzako sail eskudunak hiriarteko garraiorako baimenetarako ezarritako gehienezko mugak ezarriko du.

2. Lizentzia-kopurua aldatu egingo da, zerbitzu publikoak hala behar duenean, eta honako datu hauek hartu beharko dira kontuan, horretarako:

a) Zerbitzuaren egoera (batez ere, kalitatea eta hedapena) aldaketaren aurreko egoeran.

b) Hirigintza-garapena eta udalerraren jarduera ekonomikoa eta soziala.

c) Desgaitasunen bat duten herritarrek garraioa hartzeko erraztasunak ematea eta, horretarako, integrazioa eta mugikortasuna sustatzea.

Espediente horietan, txostena eskatu beharko zaio Bizkaiko Lurralde Historikoko Taxi Batzordeari eta organo baliokideari, eta, era berean, entzunaldia emango zaie taxiaren sektoreko kolektiboari.

2. KAPITULUA.- LIZENTZIAK EMATEA

7. artikulua.- Lizentzia lortzeko administrazio-eskakizunak.

Lizentziak lortzeko beharrezkoa izango da honako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzea:

- a) Pertsona fisikoa dela; pertsona bat baino gehiagoz osaturiko taldeei ez zaie lizentziarik emango.
- b) 18 urte baino gehiago izatea, Zirkulazio Kodeak edo horrelako jardueretan jarduteko indarrean dagoen arudiak ezartzen dituenak ez gainditzea.
- c) Beste lizentziarik ez duela.
- d) Lanbidean behar bezala aritzea ezintzen edo eragozten duen gaixotasunik edo ezgaitasun fisikorik edo psikikorik ez izatea.
- e) Indarrean dagoen legediak ezarritako zerga-betebeharrak betetzen dituela.
- f) Indarrean dagoen legediak ezarritako lan-, gizarte- edo administrazio-arloko betebeharrak betetzen dituela.
- g) Lizentziaren helburu den ibilgailuaren zirkulazio-baimena eta ibilgailuaren azterketa teknikoko txartela edukitzea.

- h) Ibilgailuaren titulartasuna egiaztatzea jabetzan edo indarreko araudiak onartutako beste araubide batean.
- i) Lizentziarekin lotuta dagoen ibilgailuak III. tituluko III. kapituluan aurreikusitako baldintzak bete beharko ditu, eta lizentzia eskatutakoan ezingo ditu bi urte baino gehiago izan lehenbizikoz matrikulatu zenetik, matrikulatu zen herrialdea edozein izanda ere.
- j) Egiten duten garraio-zerbitzuaren ondorioz erabiltzaileei kalterik eginez gero ere, kalte horietarako erantzukizun zibileko aseguru duela. Aseguru-poliza ituntzea ere nahitaezkoa izango da, legeria bereziaren arabera estaldu behar diren gainontzeko arrisku guztiak estaltzeko.
- k) Araudi honetan araututako lanbide-gaikuntzaren eskakizunak betetzea.
- l) Aurretik jarduera honetan aritzean hutsegite larri edo oso larri batengatik zigorra jaso ez izana.
- m) Administrazioarekin kontratatzeko debekurik ez izatea.

8. artikulua.- Lizentziak ematea.

1. Taxi-zerbitzuaren udal-lizentziak udal-organo eskudunaren ebazpenaren bidez emango dira, horretarako deitutako prozeduraren bitartez eta lehia askearen eta publizitatearen printzipioak zorrotz betez.

2. Lizentzia emateko prozesuan, besteak beste, honako alderdi hauek baloratu ahalko dira:

- a. Eskaintza ekonomikoa.
- b. Hizkuntzen ezagutza.
- c. Lizitatzailerak zerbitzua emateko ezaugarri berezien inguruan eginiko proposamenak.
- d. Teknologiak sartzeari (monitorizazioa, materialen diseinua, pisua eta antzekoak), ahalik eta energia-eraginkortasun handienerako, erregai berriztagarriak erabiltzeko, zarata eta CO₂en eta beste gas eta partikula kutsakor batzuen emisioak gutxitzeko eta erabilitako materialen birziklapen hobea egiteko, bai eta konposatu organo-kloratuak saihesteko ere.
- e. Radio-Taxiko igorle bati atxikitzea.
- f. Sektorera emakumeak sartzeari, emakumeen ordezkaritza % 40tik beherakoa denean.
- g. Hautagai bakoitzak gainerakoan aldean zerbitzua hobeto emango duela adierazten duten bestelako merezimenduak.

9. artikulua.- Eskatutako agiriak.

Lizentzia lortzeko, beharrezkoa izango da Udalean dagokion eskaria egitea. Horretarako, agiri hauen jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak eraman beharko dira:

- a) Eskatzailearen nortasun-agiri nazionala edo, atzerrikoa baldin bada, bere herrialdean antzeko balioa duen nortasun-agiria edo pasaporte, baita dagokion identifikazio fiskaleko zenbakia duela egiaztatzen duen agiria ere.
- b) Eskabidea aurkeztu aurreko hamabi hilabeteko epean ordaindu beharreko hainbat zerga (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren Zerga eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga) ordaindu izanaren egiaztagiria. Gizarte Segurantzaren dagokion Erregimenean izena emanda dagoela ziurtatzen duen agiria ere aurkeztu beharko da. Atal honetan aurreikusitako agiri guztiak dagokion Administrazioak eman edo baimendu beharko ditu kasu bakoitzean.
- c) Lizentzian agertuko den ibilgailuaren zirkulazioko baimena eskatzailearen izenean, araudi honetako 24. artikuluan aipatutako kasuetan izan ezik, eta ibilgailuaren Azterketa Teknikoaren Txartela.
- d) Ibilgailuen Azterketa Teknikoko aztertokiaren ziurtagiria, legezko azterketa indarrean daukala adierazten duena.
- e) Derrigorrean harpidetu beharreko ibilgailu motordunen erabileraren eta zirkulazioaren ondoriozko gizarte-erantzukizuna estalita dagoela ziurtatzen duen agiria eta egiten duten garraio-zerbitzuan erabiltzaileei eragin diezazkieketen kalte eta galerak estaltzeko gizarte-erantzukizuneko aseguru-poliza eta aseguru-poliza egunean edukitzea.
- f) Lanbidean behar bezala aritzea ezintzen edo eragozten duen ezgaitasun fisikorik edo psikikorik ez duela egiaztatzen duen agiria.
- g) Lanbidean jarduteko beharrezko ziurtagiriak eta baimenak, aplikagarria den indarreko araudiari jarraiki.

10. artikulua.- Lizentzien erregistroa.

Santurtziko Udalak, Obra eta Zerbitzuen bidez, emandako lizentzien erregistroa edo fitxategia izango du, eta, bertan, titularrei, ibilgailuei eta gidariei buruzko gorabeherak jasotzen joango dira; horretarako, baliabide informatikoak erabili ahalko dira, administrazio-izapideak arintzeko.

Nolanahi ere, aipatutako erregistroan edo fitxategian, zenbait alderdi jasoko dira, besteak beste:

- a) Ibilgailuaren titularraren izen-abizenak, helbidea eta telefonoa eta udal-lizentziaren zenbakia.
- b) Ibilgailu bakoitzari esleitutako gidariaren izen-abizenak, argazkia eta helbidea.
- c) Motorraren zenbakia eta marka, ibilgailuaren matrikula eta potentzia.
- d) Plaza-kopurua, gidariarena barne.

Era berean, lizentzien transmisioei, materialaren aldaketari, zehapenei, erreklamazioei, berrikuspenen emaitzei eta interesekotzat jotzen den antzeko beste edozein alderdiri buruzko edozer gordailutuko da.

11. artikulua.- Lizentzien indarreko epea.

Lizentziak denbora mugarik gabe emango dira, baina lizentziak emateko eta ezeztatzeko eskumena duten erakundeek egin ditzaketen ikuskaritzetarako aurreikusitako ondorioek aldatu egin dezakete hori.

12. artikulua.- Lizentziaren baldintzak egiaztatzea.

1. Udalak nahi duen guztian egiaztatu ahal izango du titularrak lizentzia egoki betetzen al duen, ezarritako araudiko baldintzak betetzen al diren eta egoki iruditutako bidezko agiri guztiak eska ditzakete.
2. Bi urterik behin, Udalak horiek emateko bete beharreko eta baliozko egiten dituzten baldintzei eusten zaien egiaztatuko du, bai eta, jatorrian eskatzen ez baziren ere, era berean, bete beharrekoak direnei. Horretarako, lizentzien titularrei idatziz eskatuko die jakinarazten direnetik bi hilabeteko epean, gehienez, honako dokumentazio hau aurkezteko:
 - a) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta BEZa aitortu izana egiaztatzen duen agiria, aurkezteko erregelamenduzko epeak eskaeraren egunaren aurreko 12 (hamabi) hilabeteetan iraungi direnak, legez horretarako agindua eman ezean. Dokumentazioa Foru Administrazioak behar bezala zigilatuta aurkeztu beharko da, eta, horren ordez, aipatutako Administrazioak emandako ziurtagiria aurkeztu ahalko da, eskatzaileak lehenengo lerrokadan aipatutako aldiari ezarritako eskakizunak betetzen dituela egiaztatuz.
 - b) Dagokion Gizarte Segurantzaren Araubidean alta-egoeraren afiliazioa egiaztatzen duen agiria.
 - c) Eskatzaileak jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen agiria, legez horretarako betebeharririk ez daukala egiaztatu ezean, eta, hala bada, azken kasu horretan, nahikoa izango da bere matrikulazioa egiaztatzea aipatutako zergan.
 - d) Derrigorrean harpidetu beharreko ibilgailu motordunen erabileraren eta zirkulazioaren ondoriozko gizarte-erantzukizuna estalita dagoela ziurtatzen duen agiria eta egiten duten garraio-zerbitzuan erabiltzaileei eragin diezazkieketen kalte eta galerak estaltzeko gizarte-erantzukizuneko aseguru-poliza eta aseguru-poliza egunean edukitzea.

3. Aurretik aipatutako dokumentazioa aurkezteko eskakizuna bete ezean edo lizentzia emateko kontuan hartu ziren eskakizunak edo, nahiz eta jatorrian eskatu ez, nahitaez bete beharreko eskakizunak bete ezean, gaikuntza ematen duten tituluak baliogabetuko dira, 16. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letran ezarritako baldintzetan, eta Araudi honetan adierazitako zehapenak ezarri ahalko dira.
4. Behin betiko ebazpen bidez administrazio bidean jarritako diru-zehapenak ordaindu beharko dira lizentziari eutsi ahal izateko.

3. KAPITULUA.- LIZENTZIAK BESTERENTZEA.

13. artikulua. Lizentziak besterentzea.

1. Taxi-lizentziak ez dira besterenduko, honako kasuetan izan ezik:
 - a) Titularra hil delako, alargunari edo legezko oinordekoei.
Hil denetik hamabi hilabeteko epean, alargunak edo legezko oinordekoek lizentzia besterentzeko eskatu beharko dute eta, horretarako, dokumentazio bidez egiaztatu beharko dute oinordeko-izaera. Izatezko bikoteek ezkontideek bezalako tratamendua izango dute, betiere harreman hori autonomia-erkidegoko edo Udaleko erregistroak emandako ziurtagiri bidez egiaztatzen bada.
 - b) Erretiratuz gero.
 - c) Aurreko a) atalean aipaturiko alargunak edo legezko oinordekoek lizentzia hori ezin dutelako ustiatu jarduera bakar eta eksklusibo bezala.
 - d) Gaixotasunagatik, istripuagatik edo ezinbesteko beste egoeraren batengatik titularrak ezin duenean etengabe lanbide horretan jarraitu.
 - e) Lizentziaren titulartasunak 10 urte baino gehiagoko antzinatasuna duenean. Besterendu ahal izango du lizentzia, aurrez udal-baimena aterata, eta ezingo du beste lizentziarik lortu hamar (10) urtean araudi honetan ezarritako inolako modutan.
2. Besterentzea Udalak baimendu beharko du, horretarako aurretik egindako eskaeraren bidez.
3. Lizentziak ezingo dira besterendu Udala lizentzia horiek iraungitzeko edo eteteko izapideak egiten ari bada.
4. Lizentziak besterentzeko ezinbestekoa izango da erostunak lizentziaren titular izateko Araudi honetan aurreikusitako baldintzak betetzea.
5. Besterendutako lizentziako ibilgailua aurreko bera izan daiteke, lizentzia erosi duenak ibilgailu hori eskuratu baldin badu Araudi honetan aurreikusitako eraren baten arabera, baina titular berriak beste ibilgailu bat ekar dezake ibilgailuak aldatzeko baldintzak betez gero.

6. Dena dela, eskumendun organoak lizentziak eta baimenak besterentzeko baimena emateko beharrezkoa izango da Araudi honetan tipifikatutako arau-hausteren bat egin eta administrazio bideko behin betiko ebazpen bidez ezarritako diru-zehapena badu, hori ordainduta izatea, lizentzia eta baimen horiekin lotutako arau-hausteak egon diren kasuetan.
7. Lizentzia ezingo da besterendu horretarako eskumendun organoak ofizialki baldin badaki lizentzia bahituta duela organo judizialak edo administratiboak.

14. artikulua.- Besterentzeen prozedura.

1. Taxi-lizentzia besterentzeko interesa duten pertsonak, aurreko artikuluan adierazitako egoeraren batean badaude, eskaera aurkeztu beharko dute, lizentzia besterentzeko Santurtziko Udaleko Erregistro Orokorrean, besterendu nahi den taxi-lizentziaren zenbakia, besterentzailearen datuak eta lizentzia eskuratzeko interesa duen pertsonaren datuak adierazita. Eskaera horrekin batera, lizentzia eskuratu nahi duen pertsonaren dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a. Nortasun Agiri Nazionalaren kopia egiaztatua.
- b. BTP gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- c. Lanbidean behar bezala aritzea ezintzen edo eragozten duen ezgaitasun fisikorik edo psikikorik ez duela egiaztatzen duen agiria.

2. Eskaera eta dokumentazioa jaso ondoren, taxi-lizentzia eskuratzeko interesduna deituko da, jarrera-ziurtagiria egiaztatzeko proba egiteko, hura deialdian adierazitako egunean eta lekuan egin dela.

3. Jarrera-ziurtagiria egiaztatzeko proba gaindituta, udal-organo eskudunak taxi-lizentziaren besterentzea onartuko du udal-organo eskudunak, bai eta jarrera-ziurtagiria ematea, gidabaimena eta garraio-lizentzia ematea ere.

Akordio horretan 30 egun emango dira, interesdunak eskakizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko. Dokumentazioa aurkeztu ezean, ondoriorik gabe geratuko da hartutako erabakia.

4. KAPITULUA.- LIZENTZIAK IRAUNGITZEA.

15. artikulua.- Lizentziak iraungitzea.

1. Lizentziak arrazoi hauengatik iraungiko dira:

- a) Titularrak uko eginez gero.
- b) Kenduz gero.
- c) Titularra hilez gero, Araudi honetako 13. artikuluan aurreikusitako besterentzerik egin ezean.

2. Lizenzia eman zuen erakundearekin adostuko da iraungitzea, dagokion prozedura burutu ondoren.

16. artikulua.- Lizenzia kentzea.

1. Lizenziak kendu ahal izango dira honako kasu hauetan:

- a) Araudi honen 7. artikuluan aurreikusitako eskakizunak ez betetzeagatik, taxi-lizenziaren titularra izateko.
- b) Araudi honen 12. artikulua xedatutakoa bete ezean.
- c) Arau-hauste oso larriak egin badira behin eta berriro edo ezarritako zigorra bete ez bada. Behin eta berriro gertatu dela esaten da arau-hauste oso larri batengatik behin betiko ebazpen bidez zigorra jaso duen batek hamabi (12) hilabete baino lehenago berriro beste arau-hauste oso larri bat egiten badu.
- d) Araudi honen 17. artikulua xedatutakoa betetzeko.
- e) Lizenziaren edo eraginpean dagoen ibilgailuaren edo horren erabileraren edo ustiapenaren edozein tituluren errentamendua, eskualdatzea edo lagapena, beharrezko udal-baimenik gabe.

2. Kendutako lizenzia baten titularrak ezingo du berriro eskatu, kendu zaionetik hamar urte igaro arte.

17. artikulua.- Lizenziak eta horien mugak etetea.

Istripua edo matxura izanez gero, gaixotuz gero edo zerbitzua eskaintzen jarraitzea ezinezkoa egiten duen beste edozer gertatuz gero, eskumendun organoak lizenziaren eraginkortasuna eten egingo du aipatutako egoerak irauten duen bitartean. Behar bezala justifikatu beharko da.

Gidariaren gaixotasunak, titularra zein soldatapekoa izan, edo gidariari zerbitzua ematen jarraitzea eragozten dion egoerak hiru hilabete baino gehiagoz iraungo balute, lizenzia kendu egin ahal izango litzateke, lizenziaren titularrak, Araudi honetan aurreikusitako balizkoen barruan beste gidari baten zerbitzuak kontratatzen dituenean salbu, aplikagarri den araudiaren arabera, zerbitzuaren jarraikortasuna bermatuz.

18. artikulua.- Ibilgailua bera edo ibilgailuaren ezaugarriak aldatzea.

1. Lizenzia duten ibilgailuak aldatu ahal izango dira Udalak baimena emanez gero, ibilgailu berriari dagokion lizenziaren erreferentziaren bidez. Aldatuz gero, aldatu den ibilgailuak 2 (bi) urte baino gutxiago izan beharko ditu lehenbiziko aldiz matrikulatu zenetik, matrikulatu zen herrialdea kontuan izan gabe.

2. Lizentzia berarekin jarraitzen utziko zaie ibilgailuan aldaketak egin badira eta aldaketa horiek baimendutako gehieneko pisuari, zama gaitasunari, jarleku-kopuruari edo beste zerbaiti buruzkoak baldin badira, betiere indarrean dagoen legediari egokitzen bazaio eta ibilgailuen ezaugarriei buruz Araudi honetan aurreikusitakoa betetzen bada.

3. Ibilgailuak istripua edo matxura izanez gero, titularrak zerbitzuarekin jarraitu ahal izango du, konpondu bitartean, antzeko ibilgailu batekin eta Araudi honetan zerbitzua eskaintzeko dauden ezaugarriak betetzen baldin baditu, betiere Udalak baimena eman ondoren.

III. TITULUA. JARDUERARAKO ARAUBIDE JURIDIKOA

LEHENENGO KAPITULUA: ERABILTZAILERAK

19. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.

Erabiltzaileek zerbitzua erabiltzeko ezarritako arauak bete beharko dituzte eta, nolnahi ere, honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Ibilgailua mugitzen ari den bitartean, ez sartzea, ez irtetea.
- b) Ibilgailua martxan dagoen bitartean gidariaren arreta galarazi edo haren lana oztopatu dezakeen ezer ez egitea, horretarako funtsezko arrazoirik ez bada.
- c) Gidariaren edo beste edozeinen osotasun fisikorako arriskutsua den ezer ez egitea.
- d) Ibilgailua hondatu edo zikinduko duen ezer ez egitea.
- e) Lizentzia edo baimena duen titularrarentzat edo ibilgailuko gidariarentzat gogaikarria edo iraingarria gerta litekeen jarrerarik ez izatea.
- f) Zerbitzuaren prezioa ordaintzea, indarrean dagoen tarifa-araubidearen arabera.

20.-. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.

Erabiltzaileek honako eskubideak dituzte:

- a) Oro har, gidariak arreta berezia jartzea, zerbitzuak emateko araubidea betetzeko.
- b) Gidariak erabiltzaileek eskatutako zerbitzua ematea; beti ere, erabiltzaileek aurreko artikuluan jasotako betebeharrak betetzen badituzte.
- c) Gidariak portaera egokia izatea erabiltzaileekin.
- d) Gidariaren eskutik idatziz jasotzea, hala eskatzen badu, zerbitzua ez emateko kausak.
- e) 50 euro bitarteko kanbioak txanponetan edo billetetan eskuratzea.

- f) Indarrean dagoen legedian ezarritako tarifa ezartzea.
- g) Erabiltzaileak hala eskatuz gero, ordainagiria ematea.
- h) Lizentziaren zenbakia eta zerbitzuei ezar dakizkiekeen tarifak zeintzuk diren jakitea.
- i) Ekipajeak garraiatzea, Araudi honetan ezarritakoaren arabera.

BIGARREN KAPITULUA: GIDARIAK

21. artikulua.- Gidarien betebeharrak.

Gidariak, edo, hala badagokio, soldatapekoek, honako betebeharrak hauek dituzte:

- a) Eskatutako zerbitzua egin beharko dute, ibilgailua libre baldin badago eta eskaria erabiltzaileen 19. artikuluan aurreikusitako betebeharrei egokitzen bazaie.
- b) Ezingo dute eraman lizentzian baimendutako jarlekuak baino bidaiari gehiago.
- c) Zerbitzua emateko araubidea ahalik eta hobekien betetzen saiatuko dira, eta zerbitzuak tarifa-araubideari jarraiki kobratuko dituzte.
- d) Erabiltzaileekin gizalegez jokatuko dute.
- e) Ibilgailuan begi bistan eramango dituzte, erabiltzaileen eta ikuskaritzen esku egon daitezen, lizentziak, indarrean dauden tarifak eta gaitzen duen tituluaren arabera nahitaezkoak diren beste agiri guztiak.
- f) Jarduera modu pertsonalean eta erabateko erregimenean eta dedikazio eskusiboan gauzatuko du, Araudi horren 35. artikuluan jasotako salbuespenekin.
- g) Ibilgailuaren barrualdea berrikusiko du, bidaiariak hura uzten dutenean eta berehala emango dizkie, bidezkoa bada, ahaztuta utzi dituzten objektuak. Bestela, berriz, gauza horiek udaltzaingora eramango dira hirurogeita hamabi (72) ordu igaro baino lehen, zerbitzua eskaini zen ordua, amaitu zen tokia eta pertsonaren edo pertsonen deskribapena adierazi beharko dira, eta galdutako gauzak entregatu izanaren ziurtagiria eskatu ahal izango da.
- h) Urtero Obra eta Zerbitzuen zinegotzi delegatuaren dekretu bidez onetsiko den txandakatzeko-sistemarekin bat etorritik dagokion geltokian emango du zerbitzua, 38. artikuluan adierazitakoa salbu.4.

22.-artikulua.- Debekuak.

Taxi-lizentzien gidariak honako hauek dituzte debekatuta:

- a) Indarrean dauden tarifei jarraiki, dagokiona baino prezio altuagoa exijitzea, aitzakiaren bat jarrita.

- b) Zerbitzuak ematean, hirian eta hiri artean bidaiariak turismo ibilgailuz garraiatzearen gaineko ekainaren 29ko 2/2000 Legean eta aplikatzekoa den gainerako araudian agertzen denaz bestelakoa betetzea.
- c) Zerbitzu ematen den artean jan edo edatea.
- d) Erabiltzaile edo hirugarren pertsonenganako adeitasunik gabeko tratua.
- e) Geralekutik kanpo egongo da zerbitzuz kanpo edo ibilgailua bertatik kenduko du zerbitzu emateko orduetan, kausa justifikaturik gabe, zerbitzu emateko orduetan egonik.
- f) Erabiltzailea eragozteko kausa izan daitekeen geratze-ekintzaren bat egitea, zerbitzu ematen dabilenean.
- g) Ibilgailua herri-bidean abandonatzea.
- h) Automobila garbitzea edo konponketak egitea herri-bidean, trapuaz garbiketa errazak egiteaz aparte.
- i) Taxi-gidariak ezingo dituzte eraman eserlekuetan zerbitzuaren erabiltzailearen ezagun ez diren pertsonak, ikasteko fasean dauden pertsonak salbu eta, nolana ere, bezeroak aurretik horretarako baimena beren-beregi eman ezean.

23. artikulua.- Gidarien eskubideak.

Gidariak edo, hala badagokio, soldatapekoek honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) Zerbitzua eskaintzeari uko egin ahal izango diote zerbitzua legez kanpoko zerbaitetarako baldin bada, bidaiarien, gidariaren edo beste batzuen segurtasun edo osotasun fisikoarentzako arriskutsua bada edo ibilgailua kaltetzeko inguruabarrak baldin badaude.
- b) Araudi honetako 19. artikuluan aurreikusitako betebeharrak bete beharko dituzte erabiltzaileek.

HIRUGARREN KAPITULUA.- IBILGAILUAK

24. artikulua.- Ibilgailuak izateko moduak.

Lizentzia eta baimena titularrak juridikoki baliagarria duen edozein eskubide dela medio zerbitzua modu egokian eskaintzeko moduan balia dezakeen ibilgailuarekin lotuko dira. Ibilgailua izateko era hauek daude:

- a) Jabetzan edo usufruktuan.
- b) Errentamendu finantzarioan.

25. artikulua. Zirkulatzeko gaikuntza.

Ibilgailuek, nolana ere, honako baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Zirkulatzeko matrikulatuta eta gaituta egotea. Horretarako, bakarrik hartuko da kontuan aldi baterako baimenekin eta plaka bereziekin zirkulatzeko ibilgailuek eskakizun hori betetzen dutela, ibilgailuen azterketa teknikoa gainditu dutenean eta beharrezko ziurtagiria eskuratu dutenean.
- b) Legez dagokien ibilgailuen azkeneko azterketa teknikoa indarrean izatea.

26.- artikulua.- Jarleku-kopurua.

Ibilgailuek gehienez ere bost jarleku izango dituzte oro har, gidariarena barne, eta hori agertu beharko da nola zirkulatzeko baimenean hala ibilgailuaren azterketa teknikoaren txartelean. Dena dela, behar bezala justifikatutako kasuetan bederatziz (9) jarleku ere izan daitezke eskumena duen Udalak eta Foru Aldundiak baimena emanaz gero. Ibilgailuei buruz indarrean dagoen araudia bete beharko dute eta ezingo du horien homologazioan eraginik izan, eta zerbitzua eskaintzeko baldintzak jarri ahal izango dira baimen horretan.

27. artikulua.- Ibilgailuen ezaugarriak.

1. Araudi honetan araututako jardueretarako egokia den taldean sailkatuta egon beharko du ibilgailuak azterketa teknikoaren txartelean eta Ibilgailuen Araudi Nagusian aurreikusitako ibilgailuen berezko ezaugarriez gain, honako ezaugarriak izan beharko dituzte:

- a) Ibilgailuaren barruko eta eserlekuen gutxieneko neurriak eta ezaugarriak zerbitzu mota honetan erabiltzaileari eskaini beharreko segurtasuna eta erosotasuna eskaintzeko behar direnak izango dira. Nolanahi ere, gutxienez 4 ate izango dituzte eta maleta-lekuak 330 litroko edukiera izango du.
- b) Erraz sartzeko ateak: maniobra hori suabe egitea erraztuko duen funtzionamendua edukiko du.
- c) Nola ateetan hala ibilgailuaren atzeko aldean behar adina leiho egongo da ahalik eta ikuspegi, argitasun eta aireztatze handiena egoteko, kristalak gardenak izango dira eta ateetako leihoak erabiltzaileak nahi bezala eragiteko modukoak.
- d) Argi-instalazioa izango dute barruan.
- e) Su-itxalgailuak izango dituzte.
- f) Ezingo dituzte eduki ate tolesgarriak, ibilgailu egokituen kasuan izan ezik.
- g) Gutxienez 12 zerga-zaldiko indarra izango dute.
- h) Ibilgailuetako tapizatua ongi egongo da, barrualdea zikin edo gaizki dagoela ematen duen narriadurarik gabe.
- i) Zirkulazio-kodean eta bestelako aplikazio-araudietan aipatutako betebeharrak zehatz beteko dituzte.
- j) Taximetroa eta modulu adierazlea izango dituzte.

2. Taxiak gurpildun aulkientzako egokituta daudela esango da honako kasuetan:

- Gurpildun aulki elektrikoa eramateko tokia duenean eta toki horren gutxieneko neurriak apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuko I. Eranskinean, Parametro Antropometrikoei buruzkoan, edo aplikagarria den beste edozein arauditan ezarritakoari doitzen zaizkionean.
- Gurpildun aulkiak sartzeko atea gurpildun aulki elektrikoa lasai sartzeko modukoa izango da, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuko I. Eranskinean edo aplikagarria den beste edozein arauditan adierazi bezala.
- Gurpildun aulkiak sartzeko eta ateratzeko atean arrapala edo plataforma jasotzailea egongo da. Arrapala edo plataforma horiek apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuko I. Eranskinean edo aplikagarria den beste edozein arauditan adierazitako baldintzak bete beharko dituzte.
- Gurpildun aulkientzat euskarriak behar dituzte eta erabiltzailearentzako segurtasun uhalak.
- Toki horren barrualdetik heltzeko barrak izango dira inguruko kolorearekin kontrastean, eta apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuko I. eta III. Eranskinetan edo aplikagarria den beste edozein arauditan ezarritako parametroetara doitu dira funtzionalitateari eta neurriari dagokienez.
- Gidariak izango dira euskarriak eta segurtasun-uhalak jarriko dituztenak, baita gurpildun aulkikoei ibilgailuan sartzea eta irtetea erraztuko dieten ekipoak manipulatuko dituztenak ere.
- Egokitutako taxiak mugikortasun gutxieneko pertsoneri lehenetsua emango diete, baina ez dute, inondik inora, erabilera hori bakarrik izango.
- Tarifa-koadroek eta gainerako informazio osagarriak material inprimatuan eta Braille sisteman egon beharko dute eskuragarri, bai eta komunikaziorako edozein idatzizko metodotan ere.

28. artikulua.- Ibilgailuen bestelako ezaugarriak.

“Zerbitzu Publikoa” bereizgarriak, “libre” adierazgarri argidunak, eta taximetroaren argiek Ibilgailuen Araudi Orokorra onesten duen abenduaren 23ko 2822/1998 EDren XI. eranskinean edo aplikagarria den beste edozein arauditan jasotzen diren ezaugarriak izango dituzte.

29. artikulua.- Pintura eta bereizgarriak.

Udalak erabaki ahalko ditu, taxi-zerbitzurako ibilgailuen uniformetasuna lortzeko, horien diseinua, kolorea eta bereizgarriak.

30. artikulua. Taximetroa eta moduluak.

1. Taximetroa karrozeriaren aurrealdeko erdiko herenean joango da, barrualdean, bidaiariak zenbatekoa ikusteko moduko tokian, eta martxan dagoenean beti piztuta egongo da. Taximetroa gutxienez lau tarifa erabiltzeko modukoa izango da eta ordainagiriak egin ahal izateko gailu bat izango du.

2. Modulu adierazlea ibilgailuaren sabaiko aurrealdean jarriko da eta horren zeregina kanpoan ibilgailuko taximetroa zein tarifatan dagoen eta, dagokionean, libre dagoela adieraztea izango da.

3. Honako baldintzak bete beharko ditu moduluak:

- c) Lizenziaren zenbakia eramango du.
- d) Lizenzia eman duen Udalaren izena eramango du.
- e) "Libre" dagoela adierazteko, moduluko argi berdea piztuko da.
- f) Libre ez baldin badago, moduluak aplikatzen ari den tarifa bakarrik adieraziko du.
- g) "Taxi" hitza izango du.
- h) Fabrikatzailearen marka eta homologazioko identifikazio ikurrak eramango ditu, edo, dagokionean, erabiltzeko baimenarenak.
- i) Ezingo du beste ezer eraman.

4. Taximetroa eta moduluak martxan jarriko dira hiriko ibilbideetan turismo ibilgailuen erabilera eskusiboko garraio-zerbitzu guztientzat.

5. Taximetro guztiei indarrean dagoen araudian ezarritako kontrol metrologikoa egingo zaie fase guztietan.

Taximetro guztiak zigilatuta egongo dira eredu onetsi zenean ezarritakoaren arabera. Zigiluren bat apurtuz gero, berria jarri beharko zaio baimendutako tailerrean eta konpondu ondoren ibilgailua hori egiaztatzerako eraman beharko da.

LAUGARREN KAPITULUA. GIDARIAK.

31. artikulua. Turismo-ibilgailuen gidariak.

Ibilgailuek gidari bakarra izango dute. Gidari hori lizenziaren titularra izan daiteke edo titular horrek lanerako kontratatutakoren bat, Araudi honetan aurreikusitako salbuespenetarako eta ezar daitezkeen baldintzak betetzen baditu.

32. artikulua.- Gaitasun-ziurtagiria.

1. Gaitasun-ziurtagiria eskuratzeko, honako hau egiaztatu beharko da:

- a) Udalerria, inguruak, herri-bide nagusiak, interes turistikoa duten lekuak, bulego publikoak, zentro ofizialak, hotel nagusiak eta helbideetara heltzeko ibilbide egokiak ezin hobeto jakitea.
- b) Zerbitzuari buruzko arauak ezagutzea, bai eta indarrean dauden tarifak ere.
- c) Bidaiariak turismo-ibilgailuetan garraiatzeko jarduerari buruzko kontabilitate eta zergei buruzko oinarrizko ezagutzak izatea.
- d) Zerbitzuak berak edo bere espezializazioak izaeraren arabera eskatzen dituen beste eskakizun batzuk.

2. Aipatutako ondorioetarako, Udalak azterketak deituko ditu eta horiek gainditzeko honakoak egin beharko dira:

- a) Zuzen erantzun udal-araudiari buruzko bost (5) galderetatik hiruri (-).
- b) Zuzen egin hiru (3) ibilbidetatik bi (2); horietan, irteera, helduera eta ibilbidea kale, plaza eta intereseko lekuen izenekin azaldu beharko dira.

3. Gaitasun-ziurtagiria urtebeteko epean iraungiko da, baldin eta epe horretan interesdunak hiri barruan bidaiariak turismo-ibilgailuan garraiatzeko jarduera bete ez badu.

33. artikulua.- Gidariaren baimena.

1. Hiri-barneko eta hiriarteko garraio publikoa egiten duten turismo ibilgailuak gidariaren baimena duten pertsonak bakarrik gidatu ahal izango dituzte. Baimen hori Udalak ematen du honako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren:

- a) Garraio eta bide-segurtasun arloan eskumendun organoak emandako gidari baimen egokia izatea.
- b) Lanbidean behar bezala aritzea ezintzen edo eragozten duen ezgaitasun fisikorik edo psikikorik ez izatea. Horren barnean sartzen dira infekziosoak direlako bidaiaria kutsatzeko arriskua duten gaixotasunak. Hori egiaztatuzko, nahikoa izango da behar adinako titulazioa duen mediku kolegiatu batek egindako ziurtagiria aurkeztea.
- c) Gaitasun-agiria izatea.

2. Baimen hori honako motibo hauengatik iraungiko da:

- a) Titularrak erretiroa hartzeagatik.

- b) Lana egiteko behin betiko ezgaitasuna edo baliogabetasuna izateagatik.
- c) Gidabaimena kendu edo berritu ez den kasuetan.

BOSGARREN KAPITULUA.- ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZAK.

34. artikulua.- Jarduera burutzea eta horretarako baldintzak.

1. Turismo-ibilgailuen lizentziak edo baimenak titularra gaitzen du Araudi honetan adierazitako zerbitzuak emateko, bertan ezarritako baldintzetan, bai eta Bidaiariak herri barruan eta kanpoan autoz garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legeak ezarritako eta Legearen Erregelamendua onesten duen urriaren 15eko 243/2002 Dekretuan edo aplikagarria den indarreko beste araudiren batean ezarritako baldintzetan ere.

2. Turismo ibilgailuen lizentzia lortzen dutenek, lizentzia horietan aipatzen diren ibilgailuekin hasi beharko dute garraio-zerbitzua eskaintzen lizentzia ematen denetik gehienez ere egutegiko hirurogei (60) eguneko epean, udalean idatziz arrazoi justifikatuak kreditatu ezean.

3. Interesdunak hala eskatuta, Udalak gehienez ere hirurogei egunez luzatu ahal izango ditu goian aipatutako epe horiek, arrazoi justifikatuak kreditatuz gero. Dena dela, gehienez ere bi luzapen emango dira.

35. artikulua.- Jarduerarako dedikazioa.

1. Lizentziaren titularrak berak eman beharko du garraio-zerbitzua, eta erabateko dedikazio eskusiboa izango du.

2. Baina titularra hilez gero, ezgaituta gelditu, behin-behinekoz beharrik egin ezinda egon edo zerbitzua pertsonalki ezin eskaintzeko behar den moduan egiaztatutako beste egoeraren bat gertatuz gero, lizentzia ustiatu ahal izango da soldatapeko gidari bat kontratatzen bada, lizentzia bakoitzean gidari bakarra egon litekeen arren.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoarekin bat, inola ere ezingo da zerbitzua eskaini soldatapeko gidari baten bidez titularrak erretiroa hartu badu.

3. Soldatapeko gidariek udalean egiaztatu beharko dute jarduera hasi aurretik lizentzia daukanak kontratatu dituela eta egun osoko beharri dagokion Gizarte Segurantzako langileen erregimenean sartu direla. Era berean, araudi honen 32. eta 33. artikuluetan araututako gaitasun-ziurtagiria eta gidabaimena dituztela kreditatu beharko dute.

36. artikulua.- Zerbitzua kontratatzea.

Turismo ibilgailuetan egiten den hiri-garraio publikoko zerbitzua eskaintzeko, ibilgailua osorik kontratatuko da.

37. artikulua.- Zerbitzu osagarriak.

Turismo ibilgailuetan egiten den hiri-garraio publikoko zerbitzua pertsoneri eta euren ekipajeei eskainiko zaie. Horrela bada, turismo ibilgailuetako gidariek utzi egin beharko diete bidaiariei autoan maletak edo bestelako fardelak eramaten ibilgailuaren maletategian kabitzen baldin badira, ez badute ezer kaltetzen eta horrekin ez badute indarrean dagoen araudirik edo xedapenik hausten.

SEIGARREN KAPITULUA.- GELTOKIAK eta KOKAGUNEA.

38. artikulua.- Geltokiak.

1.- Ibilgailuen herri-bideko geltokiak eta horietan aparkatzeko modua eta aireportuko zerbitzua Obren zinegotzi delegatuaren dekretuaren bidez onetsitako txandakatze-sistemaren bidez ezarriko da, Santurtzin turismo-ibilgailuen sektoreko elkarte ordezkariak entzunda eta Araudi honen 41. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.- Geltokien kokagune guztiak, bai eta kokaguneetako bakoitzaren edukiera ere alda eta zabal ditzake Alkatetzak bere eskuduntzen indarrez, zerbitzua hobetzeko, trafikoaren beharretarako edota antzeko bestelako arazoiek horrela egitea komeni dela erakusten badute, eta ukitutako garraiolariak ez dute horregatik, inolako galdapenik egiteko eskubiderik izango, eta hori guztia nor bere elkarteei kontsulta egin eta gero.

3. Asteburuetan taxi-geltoki nagusian baino ez da zerbitzu emango; beraz, zerbitzua eman behar duten lizentzia guztiek geltoki nagusian egon beharko dute.

4. Ibilgailu guztiek dute, egunero, dagokien udal-lizentzia hartuta, geraleku nahiz kokaguneetara agertzeko betebeharra, zerbitzua emateko, eta betiere erantzuteko moduan egoteko konbinatu beharko dituzte ordutegiak. Taxi-lizentzia bakoitzari esleitutako geltokiak, aipatutako txandakatze-sistemaren arabera, ezingo dira aldatu, aireportuaren geltokia izan ezik; hori beste egutegi-talde bereko beste lizentzia batekin ordezkatu ahalko da eta betiere kausa justifikatuta.

39. artikulua.- Geltokien antolamendua.

Taxi-ibilgailuak geltokietan izango dira helduera-ordenaren arabera, eta erabiltzaileen eskariari erantzungo diote, dauden ordenaren arabera, bertan dauden taxi-gidariak beste zerbaitek erabaki ezean.

40. artikulua.- Gaueko zerbitzuak.

Udalak, zerbitzua bermatzeko beharrezkoa denean, gaueko ordutegirako txandakako sistema ezarri ahalko du taxi-lizentzia guztien artean.

41. artikulua.- Zerbitzua eskaintzeko ordutegi eta egutegiak.

1. Ibilgailuetako gidariak zerbitzu jarraitua eskaini beharra daukate urte osoan, justifikatutako zergatiren batek galarazten ez duenetan; indarrean dagoen lan Legediak urteko atsedeneri edo oporrei buruz xedatutakoari dagokionez, hor xedatutakoa beteko da.

2. Neurri horren kontrola Santurtziko Udalak egingo du, horretarako ezartzen dituen mekanismo edo gailuen bidez.

3. Bidaiarien garraio-zerbitzu publikoa eskaintzen duten turismo ibilgailuetako gidariak astean egun batean atsedean hartuko dute nahitaez eta bi asteburutatik batean ere bai txandaka.

4. Udalak, Santurtzi udalerriko turismo ibilgailuen sektorearen elkarte ordezkariari entzun ondoren, lizentzien titularren ordutegi, egutegi, atsedenaldira eta oporraldiei buruzko urteko araudia arautu ahalko du, laneko eta gizarte-segurantzako legeria betez, eta zerbitzuan jarraitutasun egona dadin saiaturiko da.

5. Urtero, abenduan, taxi-gidarien ordezkariak hurrengo urteko egutegia aurkeztu beharko du. Egutegi horretan, geltokien (aireportua, San Juan de Dios, Kabiezes eta egon daitezkeen beste geltoki batzuk) txandakatzeko sistema jaso beharko da, bai eta asteburuaren banaketa ere.

Dokumentazioa jaso ondoren, Udalak, Obra eta Zerbitzuen zinegotzi delegatuaren dekretuaren bitartez, dagokion urteko egutegia onetsiko du.

6. Erregelamendu hau aplikatzeko, zerbitzuak emateko egutegiak dagokienez, asteburutzat joko da ostiraletako 15:00etatik igandeko 21:00ak arte, txandakatzeko sistema onesten duen Obra eta Zerbitzuen zinegotzi delegatuaren dekretuan beste ordutegi bat onetsi ezean.

42. artikulua.- Ibilgailuan izan beharreko agiriak.

1. Zerbitzua eskaintzen ari denean turismo ibilgailuko gidariak honako agiriak izan beharko ditu ibilgailuan, erabiltzaileen, agintea duten agenteen eta udal-ikuskaritzaren eskura, gidari guztiei eskatzen zaien ohiko agiriez gain:

- a) Ibilgailuaren titularrari buruzko turismo ibilgailuaren lizentzia eta bidaiarien herri arteko garraio publikorako baimena.
- b) Ibilgailuaren gidariak ibilgailuen gidari-lanean aritzeko lizentzia.

- c) Metropolitiko udalerrietako planoak eta gidak eta gida turistikoa; sorospen-etxeen, ospitaleen, kliniken, anbulatorioen, polizia-etxeen, suhiltzaileen eta larrialdietako beste zerbitzuen helbideak.
- d) Ordainagirien eta fakturen taloitegia.
- e) Indarrean dauden tarifei buruzko informazioa, begi-bistan.
- f) Ibilgailuaren eserleku-kopurua adierazten duen txartela.
- g) Aseguru poliza.
- h) Indarrean dauden arauak, besteak beste, 2/2000 Legea eta Erregelamendu hau.
- i) Taximetroaren kontrol metrologikoaren buletina eta Ibilgailuen Azterketa Teknikoa egin duen aztertokiaren ziurtagiria, azkeneko egiaztapenekin.
- j) Kontrol Metrologikoaren txartela agerian, egiaztapen-epeak noiz arte balio duen adierazten duela.
- k) Erreklamazio-orriak, hurrengo atalean adierazten diren ezaugarriekin.

2. Erreklamazio-orriak hiru aleko kalkoz osaturiko inprimakiak izango dira: bata administrazioarentzat izango da, bestea gidariarentzat eta hirugarrena erabiltzailearentzat. Inprimaki horien edukiari dagokionez, eskumendun Administrazioak emandako eredu ofizialari doituko zaizkio. Erabiltzaileak erreklamazioa egin eta hogeita hamar (30) eguneko epean igorri beharko dio zerbitzuko titularrak dagokion kopia eskumendun organoari.

43. artikulua.- Ikuskaritza.

1.- Ikuskaritza ofiziozkoa edo erakunde, organismo edo pertsona fisiko interesdun batek egindako salaketa baten ondoriozkoa izan daiteke.

2.- Udal-ikuskatzaileak agente publikotzat hartuko dira, betiere dagozkien eskumenak baliatuz dihardutenean, eta erabateko independentzia izango dute jarduteko.

3.- Beren zereginak eraginkortasunez betetzeko, ikuskatzaileek udaltzaingoaren eta beste segurtasun-kidego eta -indar batzuen beharrezko laguntza eskatu ahalko dute, bai eta beste administrazio batzuetako ikuskaritza-zerbitzuena ere.

4.- Taxi-lizentzien titularrek eta, hala badagokio, soldatapekoek udal-ikuskatzaileei –behar bezala identifikatuta– ibilgailuetara sartzeko eta Bidaiariak herri barruan eta kanpoan autoz garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legearen eta haren garapen-erregelamenduaren araberrako dokumentazioa eskuratzeko bide eman beharko diete.

IV. KAPITULUA – TARIFAK.

44.-. artikulua.- Zerbitzuen tarifak.

Turismo ibilgailuen hiri eremuko zerbitzuek tarifa izango dute, eta tarifa hori aldian-aldian gainbegiratu eta onetsi egingo da Eusko Jaurlaritzako Industria eta Merkataritza Sailaren 1998ko irailaren 21eko aginduan ezarritako prozeduraren edo berau ordeztzen duen arauaren arabera. Hiriko ibilbideetan tarifa hori loteslea eta nahitaezkoa izango da turismo ibilgailuetako gidarientzat eta ibilgailuentzat.

III. TITULUA. ZEHAPEN ARAUBIDEA.

45. artikulua.- Garraiolarien arau-hausteak.

Ibilgailuetan egiten diren garraio-zerbitzuak arautzen dituen araudiko arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak dira.

1. Hauexek dira arau-hauste oso larriak:

- a) Lizentziarik gabe edo lizentzia iraungi ondoren zerbitzua eskaintzea.
- b) Beste baten izenean egindako lizentzia erabiltzea edo lizentziaren titularra ez den edo horretarako izendatutako gidaria ez den pertsona batek gidatuta zerbitzua eskaintzea.
- c) Ikuskaritza-, zaintza- eta kontrol-zerbitzuen jardueri uko egitea edo oztopoak jartzea, eta horren ondorioz arauz dituzten funtzioak ezin betetzea.
- d) Automobilaren derrigorrezko aseguruia ez izatea.
- e) Arau-hauste larri bat egitea, horren aurreko hamabi hilabeteetan erantzukizun zigorren bat izan badu, administrazio bidean edota bide judizialean dagoen behin betiko ebazpen bidez, arau-hauste larriagatik.
- f) Ibilgailua alkoholaren edo substantzia estupefazianteen pean egonda gidatzea.

2. Hauek dira arau-hauste larriak:

- a) Lizentzian ageri dena ez den ibilgailu batekin zerbitzua eskaintzea eta gaitzen duten titulu horien lurralde-eremua ez betetzea.
- b) Lege honetan araututako jarduera erregimen bakar eta eskusiboan ez betetzea, eta hor sartzen ez diren zerbitzuak eskaintzea.
- c) Lizentzia eman eta zerbitzua ez hastea edota inolako arrazoirik gabe egutegiko hirurogei eguneko epean zerbitzua etenda izatea.

- d) Zerbitzuari buruzko kexak edo erreklamazioak egiteko agiriak erabiltzaileei ez ematea edo emateko oztopoak jartzea.
- e) Nahitaezko zerbitzuak ez betetzea eta ezarritako ordutegien eta atsedenen koordinazio erregimena ez betetzea.
- f) Erabiltzaileen zerbitzua ez artatzea eta eskatutako zerbitzua bete gabe erabiltzaileak uztea, 19. eta 22. artikuluetan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean izan ezik.
- g) Tarifen araubidea ez betetzea.
- h) Zerbitzua ibilbide desegokitik egitea, erabiltzaileen ekonomiarentzako kaltegarria izanik edo inolako arrazoi justifikaturik gabe erabiltzaileak adierazitakoari egin gabe.
- i) Zerbitzua kontratatu duen bidaiaria ez den norbait joatea ibilgailuan.
- j) Ibilgailuan eserlekuak banaka kontratatzea.
- k) Erabiltzailearentzat, kalean doazenentzat edo beste gidarientzat iraingarriak diren hitzak, mehatxuak edo keinuak erabiltzea.
- l) Ibilgailuan utzitako edozein gauza berarentzat gordetzea hurrengo hirurogeita hamabi orduan eskumena duen agintariei horren berririk eman gabe.
- m) Taximettoa edota modulua ez izatea, ez erabiltzea edo horrek behar bezala ez funtzionatzea, baita ibilgailuan nahitaez eraman beharreko kontrolerako beste edozein bitarteko edo tresna ez izatea edo faltsututa edo manipulaturuta izatea, eta tresna horiek eta ibilgailuak behar den azterketak egitera ez eramatea.
- n) Bidaiariak lizentzia eman duen udalerritik kanpo hartzea, ezar daitekeen araudian baimendutako kasuetan izan ezik.
- o) Baimendutakoak baino bidaiari gehiago eramatea.
- p) Txandakako egutegiaren sistema ez betetzea, zerbitzuaren egunei eta geltokiei dagokienez.
- q) Arau-hauste arin bat egitea, horren aurreko hamabi hilabeteetan erantzukizun zigorren bat izan badu, administrazio bidean edota bide judizialean dagoen behin betiko ebazpen bidez.

3. Hauexek dira arau-hauste arinak:

- a) Erregelamendu honetan eskatzen diren agiri formalak ibilgailuan izan gabe zerbitzuak egitea.
- b) Agiriak ikusteko moduko tokian ez eramatea, hala egiteko betebeharra izan arren.
- c) Nahitaez berri eman beharreko datuak Administrazioari ez adieraztea.
- d) Erabiltzaileei edo hirugarrenei tratu desegokia ematea, arina izan delako akats larri bezala har ez daitekeen kasuetan.
- e) 12. artikuluan zerbitzua emateko eskatzen diren betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa ezarritako epean ez aurkeztea.

- f) Gidariaren garbitasun pertsonala eta ibilgailuaren kanpoko eta barneko garbitasuna zaindu gabe egotea.
- g) Erabiltzaileari Erregelamendu honetan ezartzen den kopururaino txanpon metalikoaren edo billeteen kanbioak ez ematea.
- h) Erregelamendu honetan ezarrita dagoen eta arau-hauste larritzat edo oso larritzat tipifikatuta ez dagoen edozein arau-hauste.

46. artikulua.- Erabiltzaileen arau-haustek.

- 1. Arau-hauste arina izango da erabiltzaileek dagozkien betebeharrak ez betetzea araudi honetako 19. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- 2. Arau-hauste horiek gidariak erabiltzaileari edo ibilgailuan dagoenari jar diezaiokeen izaera zibileko salaketari kalterik egin gabe zigortuko dira.

47.-artikulua.- Zigorrak

- 1. Arau-haustek honako zigorrak izango dituzte:
 - a. Arau-hauste arinek 750 € arteko ohartarazpena edota isuna izango dute edota gaitzen duen titulua kenduko zaie gehienez ere hamabost egunerako.
 - b. Arau-hauste larriek 751 eurotik 1500 eurora arteko isuna izango dute edota gaitzen duen titulua kentzea, gehienez ere sei hilabeterako.
 - c. Arau-hauste oso larriek 1500 eurotik 3000 eurora arteko isuna izango dute edota gaitzen duen titulua kentzea, gehienez ere urtebeterako.
- 2. Aurreko paragrafoan ezarritako mugen barruan ezarritako isunen zenbatekoa otsailaren 20ko 2/1998 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen zehapen-ahalaren gainekoan, xedatutakoaren arabera mailakatuko da.
- 3. Erregelamendu horren arabera dagozkien isunez aparte, arau-hauste oso larriak behin baino gehiagotan eginez gero edo ezarritako zigorra betetzen ez bada, gaitzen duen titulua kendu ahal izango da.

48. artikulua.- Preskripzioa.

- 1. Arau-hauste oso larriak hiru urtera preskribituko dira, larriak bi urtera eta arinak sei hilabetera.
- 2. Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zigorrak hiru urtera preskribituko dira, arau-hauste larriengatik ezarritakoak bi urtera eta arinengatik ezarritakoak urtebetera.

3. Preskripzio-eparean konputuari dagokionez, nola arau-hausteetan hala ezarritako zigorretan, eta epea eteteari eta berriro hasteari dagokionez, 2/1998 Legean agindutakoa beteko da.

49. artikulua.- Eskumena eta prozedura.

1. Aurreikusitako zigorrak Alkatetza Udalburutzak edo horrek eskuordetutako organoak ezarriko ditu.
2. Erregelamendu honetan aurreikusitako zigorrak ezartzeko eta burutzeko, otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Zigor-prozeduran har daitezkeen kautelazko neurriei buruz lege horretan xedatutakoari kalterik egin gabe, arau-hauste larria edo oso larria hautematen bada zerbitzu bat eskaintzen ari dela, ibilgailua berehala gelditzeko eskatu ahal izango da arau-haustearen zergatiak desagertu arte, eta Administrazioak behar diren neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzu hobea eskaintzeko.

3. Behin betiko ebazpen bidez administrazio bidean jarritako diruzehapenak ordaindu beharko dira Erregelamendu honen 12. artikuluan eskatzen dena betetzeko eta lizentziak eskualdatu ahal izateko.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Indarrean dauden lizentzien baldintzak egiaztatzeko, taxiaren udal-lizentziaren titularrek bisatua eskatu beharko dute, Erregelamendu hau indarrean sartu eta 6 hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENA

Berariaz adierazten ez diren eta Erregelamendu honetan araututako guztietarako, Bidaiariak herri barruan eta kanpoan autoz garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legeak ezarritakoa eta Bidaiariak herri barruan eta kanpoan autoz garraiatzeko zerbitzu publikoari buruzko Legearen Erregelamendua onesten duen urriaren 15eko 243/2002 Dekretuak ezarritakoa eta etorkizunean ematen diren gainerako indarrezko lege-xedapenetan eta osagarrietan ezarritakoa bete beharko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Berariaz indargabetuko da 1979ko urriaren 11n onetsitako bidaiarien alokairuko automobilen lineaz kanpoko zerbitzu publikoaren araudia, bai eta

osteko aldaketa ere, Udalaren Osoko Bilkurak 1983ko azaroaren 4an eginiko ohiko bileran hartutako erabakiaren bidez onetsia.